

**1999KO IRAILAREN 30EAN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamarra

HILABETEA: Iraila

URTEA: Mila bederatzehun eta laurogeita hemeretzia

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Josi Insausti Mujika
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Ana Isabel Asla Egialde
Jose Antonio Guirado Tristán
Patxi Plazaola Muguruza
Pello Garaialde Goikoetxea
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Aimar Larrea Garín
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gómez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna
Jorge Juan Outeiral Fernandez

ETORRI GABEAK: Jon Berbel Aiestaran
Leire López Zurutuza

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTA

1999ko uztailaren 29ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2- KARGUAZ JABETZEA

PP alderdiko Jorge Juan Outeiral Fernandez zinegotzi hautetsi jaunak, orain arte egindako batzarraldietara ezin etorria desenkusatu du. Horregatik, batzarraldi honetan bere karguaz jabetu da aldeztu aurretik ekainaren 19ko Hauteskunde Erregimen Orokorreko 5/85 Lege Organikoko 108.6 artikuluan xedatutakoa beteta.

3- KONTU OROKORRAK

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Hauteskundeak izan aurretik, Kontuetarako Batzorde Berezia bildu zen Udalaren **diru-kontuak** onartzeko. Jarraian 1999ko ekainaren 17an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu zen eta jendaurrean egondako epean ez da inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu. Beraz, orain Udalbatzari Udalaren **diru-kontuak** onartzeko proposamena egiten zaio.”

Alkate jaunak, Jose Antonio Guirado, Hazienda-batzordeburuari hitza eman dio eta honek Kontuetarako Batzorde Bereziaren txostena irakurri du: “Hazienda Lokalak erregulatzen dituen 39/1988 Legearen 193 eta Entitate Lokaletako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Erregelamenduaren 127.2 artikuluek xedatutakoa betez, Batzorde honek, 1998ko Aurrekontu Orokorren Kontu Orokorra aztertu du eta horretarako, kontu horiek, dagozkien dokumentuak eta 1999ko maiatzaren 11ko Alkatearen Ebazpenaren bidez onartutako aurrekontuaren likidazioa aurrean izan ditu.

Dokumentu horiek eta aurrekontuari buruzko abenduaren 31ko kutzako kontaketa aktak aztertutik, Batzorde honek aipatutako kontuak onartzen ditu. Nolanahi ere, Udalbatzak egokia deritzona erabakiko du.”

Jarraian ondorengoa dio: “Erakunde Lokaletako Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 62. artikulua, zera xedatzen du, alegia, Udal Entitateek, kontabilitate ekitaldia amaitzerakoan, ekitaldian zehar burututako aurrekontuak, aurrekontuz kanpokoak, ondare eta diruzaintza eragiketa guztiak irudika ditzan Kontu Orokorra osatuko dutela. Kontu Orokor hori, Batzorde Bereziaren txostenarekin batera, jendaurrean erakutsi ondoren Korporazioaren Osoko Bilkuraren iritzipean jarri beharko dela ere adierazten du.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PP eta PSE-EE/PSOeko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Andoni Antxia (EH) jaunak gaur egungo zorpetze-portzentaia [zenbatekoa](#) den egindako galderari erantzun zaio esanez abenduaren 31n %10 zela.

Besterik gabe bozketa egin da eta aho batez “1998ko ekitaldiko Udalaren [diru-kontuak](#) onartu dira.”

4- ORDENANTZA FISKALAK. 2000. urterako tarifei behin-behineko onespena emateko proposamena.

Alkate jaunak, Jose Antonio Guirado, [Hazienda-batzordeburuari](#) hitza eman eta honek honela dio: “En cuanto a las tarifas propuestas hay que decir que:

Impuestos obligatorios

- En el IBI se mantiene el tipo.

- El IAE pasa del 1,15 al 1,25. Los motivos son los siguientes:

1- Situación comparativa con el resto de municipios.

2- La coyuntura económica favorable incide en la mejora del sector comercial.

3- Hace dos años se acordó reducir la tasa de las licencias de apertura. La disminución de ingresos por este concepto se compensa con la subida que ahora se propone.

El impuesto de vehículos de tracción mecánica se incrementa el IPC (2%).

Impuestos potestativos

En el impuesto sobre construcciones, obras e instalaciones y en el impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos, se mantienen los tipos.

Tasas: en general se aplica el IPC para todas las tasas con las siguientes excepciones:

- Recogida de residuos urbanos. Se aplica la subida propuesta por Sasieta para las cuotas de los municipios, es decir, la subida es de un 5%.

- El canon de infraestructuras habría que subirlo un 33%, pero hemos contabilizado el canon de infraestructuras, más el alcantarillado y el agua, y se ha decidido no subir más del 2%.

- Nichos del cementerio. Hasta ahora sólo hay una tarifa y se incorpora una para los niños, ya que según el informe de servicios el coste en este caso es menor. Por lo tanto queda de la siguiente manera: adultos, 68.000 pts. y niños, 53.000 pts.

- Utilización de bienes municipales. Servicios ha sacado una normativa de utilización, que se incorpora a la propia ordenanza y se ha reducido la tasa.

- Se incorpora la tasa de utilización del servicio del Centro de Día.

- Las tarifas de los organismos **autónomos** rondan el incremento del IPC.

En las **categorías** de calles, se ha efectuado una revisión. Pasan de segunda **categoría** a primera, Esteban Lasa números 4 al 12, Gipuzkoa plaza, Lorategi kalea, Mendeurren Etorbidea, Nabarro Larreategi y Zelaeta kalea. Pasan de segunda categoría a tercera, Joan XXIII, Martin Aranburu y Mateo Muxika, de tercera a primera, Zapatari kalea y de primera a segunda, Martina Maiz del nº 5 en adelante y Zaldizurreta números pares.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Guk pentsatzen dugu kontsumo prezioen indizeaz kanpo badaudela beste aukera batzuk kontuan izan behar direnak. Guk ere ez dugu denbora gehiegi izan aukera horiek aztertzeko eta horren ondorioz, abstenitu egin behar gara.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Guri erabateko adostasuna **ematea** gustatuko litzaiguke, azpiegitura-kanonarekin eta urarekin egin den **bezala**, azterketa orokorrean egitea **alegia**. Horrela izango balitz gure aldetik ez litzateke inolako arazorik egongo. **Guri**, aurrerantzean kontsumo-prezioen

indizearen araberako igoera baztertzea [gustatuko litzaiguke](#). Beraz, abstenitu egingo gara.”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Kontsumo-prezioaren indizea aplikatzea ez da igotzea, eguneratzea [baizik](#).”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV/EA, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (EH, PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. [2000](#). urterako tarifei behin-behineko onespena ematea.

Bigarren. Espedientea jendaurrean jartzea hogeita hamar eguneko epean, erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

5- ARAU SUBSIDIARIOAK

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak [zera dio](#), [puntu honetan](#), Beasaingo Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen bigarren aldaketari buruzko irizpide eta irtenbide orokorrak onartzea eta jarraian hasierako onespena ematea proposatzen dela.

a- Irizpide eta irtenbide orokorrak onartzeko proposamena.

Alkateak, Patxi Plazaola [hirigintza-batzordeburuari](#) hitza eman [dio](#), eta honek, hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“AURREKINAK

1 Sektoreko jabeen eta Udalaren artean sinatutako hitzarmenak, eta [besteren](#) artean, Beasainen [egin](#) den [hirigintza-garapen](#) azkarrak, 1 Sektoreko [ordenamenduarentzako erreferentzi markoan](#) aldaketa handia [ekarri](#) du, eta horretarako, [beharrezkoa](#) izan da 1 Sektoreko [hirigintza-fitxa](#) aldatzea. Aldaketa nagusiki, [bide-egitura](#), [eraikuntza-profiletan](#) eta [babes ofizialeko etxebizitzentzat ezarritako](#) aprobetxamendu-motaren zifrak [%20ko](#) neurri estandarrari egokitzeari dagokio.

Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen bigarren [aldaketarako](#) lanak behar adina garatu direnez, [aipatu dokumentuaren Aurrekina](#) hogeita

hamar eguneko epean jendaurrean jarri zen, 1999ko uztailaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 1999ko uztailaren 12ko Diario Vascon eta 1999ko uztailaren 9ko Euskaldunon Egunkarian iragarkiak argitaratuz. Epe horretan ez zen inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztu. Epez kanpo [ordea](#), Fernando Madrazo Rada jaunak, Urbialde S.A.ren izenean sinatutakoa [aurkeztu zen](#).

Aurkeztutako alegazioak, aldaketa hauek sartzea proposatu du:

a- Babes Ofizialeko Etxebizitzetako izendatutako sabaiko (S) metro karratuak 3.000 metro karratutan finkatzea.

b- Homogeneizazio-koefizienteak Egitasmo Partzialak ponderatzeko aukera onartzea.

c- Sotoetako garajeen azalera 8.000 metro karratukoa [izateko baimena ematea](#).

d- [Merkataritza-aretoen](#) azalera 2.500 metro [karratukoa izatea](#).

[Aldez aurretik egindako](#) Txosten teknikoa izanda, hirigintza-batzordeak 1999ko irailaren 7an eta 14an egindako bileretan, Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen bigarren aldaketa lantzeko behar diren irizpide eta irtenbide [orokor](#) hauek onartzea [proposatu zion Udalbatzarrari](#):

1- **Babes Ofizilaeko Etxebizitzetako izendatutako sabaiko metro karratuak 3.300 metro karratutan finkatzea.**

2- **[Homogeneizazio-koefizienteak](#) Egitasmo Partzialak ponderatzeko aukera onartzea.**

3- **Sotoetako garajeen azalera 8.000 metro karratukoa izatea.**

4- **[Merkataritza-aretoen](#) azalera 2.500 metro [karratukoa izatea](#)."**

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: "Si bien en los documentos de comisión nosotros hemos aprobado las Normas, la posición política a adoptar en este Pleno va a ser la de la abstención al igual que lo haremos en el punto de la permuta. La razón en ambos casos es de carácter político. La

modificación de las Normas Subsidiarias como todo lo referente al proyecto Indar que hemos compartido casi desde su gestación como miembros de gobierno de este Ayuntamiento y como tales hemos trabajado. Pero, políticamente nuestra posición en este Ayuntamiento ha cambiado, ya que no se ha contado con nosotros para formar parte del equipo de gobierno. Por ello por principio no vamos a aprobar al cien por cien todos los proyectos, ya que queremos tener las manos libres, aunque en estos momentos no vamos a plantear una oposición específica a los puntos que se presentan. Nuestra postura será la de la abstención.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Guk pensatzen dugu hasiera batean aurreikusita zegoenarekiko, orain proposatzen den aldaketa hoberuntz doala. Baina historikoki, babes ofizialeko etxebizitzak zirela eta, ez ginen honen alde azaldu. Esan dezakegu gure arrazoiak politikoak eta teknikoak direla eta horren ondorioz gure jarrera abstentzioarena izango da.”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Respecto de la intervención de José Luis Elorza, comentar que me sorprende mucho la actitud adoptada. Son proyectos que se gestan en la legislatura pasada y no sólo con la participación del partido socialista, sino también del partido popular y de izquierda unida. Venir aquí a decir que por no participar en la comisión de gobierno vuestra actitud va a ser de oposición o de abstención en todos los temas independientemente de estar de acuerdo, sorprende.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Quiero aclarar respecto de lo anteriormente manifestado que no por principio nos vamos a oponer. Nos reservamos la posibilidad de tener las manos libres, en principio para presentar o no nuestras propuestas que pueden coincidir o no con lo que ahora se está aprobando y que posteriormente van a requerir nuevos acuerdos para poder materializar los proyectos. En la legislatura anterior ha habido una complicidad en el desarrollo de estos proyectos, complicidad que en estos momentos no se da.”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “En dos temas tan importantes para Beasain, como vosotros manifestasteis y que se trabajaron de una manera intensa en la comisión de urbanismo con vuestra participación y ya definidos desde entonces, me sorprende.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Nos reservamos el poder hacer ciertas matizaciones.”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV/EA, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 6 (EH, PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

b- Hasierako onespena emateko proposamena.

“Irizpide eta irtenbide orokorrak onartu ondoren eta Planeamendu Erregelamenduaren 125. eta ondorengo artikuluek diotenaren arabera, Udaltzari ondorengo akordio-proposamena egiten zaio:

Lehenik. Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen bigarren aldaketari hasierako onespena ematea, dokumentuak onartutako irizpide eta irtenbideak jasotzen dituelako.

Bigarren. Espedientea jendaurrean [hilabeteko epean jartzea eta iragarkia GAOn eta probintzian gehiena zirkulatzen duen egunkarietako batean jartzea](#), horrela, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal [izan ditzaten](#).”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV/EA, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 6 (EH, PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

6- LURSAILEN TRUKEA

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak, Patxi Plazaola [hirigintza-batzordeburuari eman dio hitza](#) eta honek proposamenaren berri eman du:

“1998ko abenduaren 23an, Beasaingo Udalak MAQUINAS ELECTRICAS E HIDRAULICAS INDAR S. L enpresarekin hitzarmena sinatu zuen. Hitzarmen [hartan](#), beste [konpromiso batzuen](#) artean bi erakundeen artean egin beharreko lursailen trukea jaso zen eta [hori](#) aipatutako hitzarmenaren aurrekinean [zurituta dago](#).

1- 1999ko irailaren 21ean, arkitektoak txostena eman du trukatu behar diren ondasunen balorazioa eginez.

2- Aurrekontu orokorraren baliabide arruntak, 1.424.260.458 [pezetakoak dira](#). Beraz, ondasun hauek balio dutena ez da kopuru [horren](#) % 25era iristen. Horren ondorioz, ez da beharrezkoa aurrez Autonomi Erkidegoak baimena ematea.

3- Ondasun Araudiaren 109, 112 eta [118](#). artikulua diotenaren arabera eta FAAREN 123. artikulua ematen dituen eskurantzak ikusirik, Udaltzari ondorengo AKORDIO-PROPOSAMENA EGITEN ZAIO:

Lehenik. Beasaingo Udalarena den eta 1.876. tomoan, 205. Liburuan eta 107. Orrialdean inskribatuta dagoen 11.169. finkatik MAQUINAS ELECTRICAS E HIDRAULICAS INDAR S. L enpresari 68.390 metro karratuko [lursaila](#) besterentzea, MAQUINAS ELECTRICAS E HIDRAULICAS INDAR S. L enpresarena den 19.697 metro karratuko lursailaren truke.

MAQUINAS ELECTRICAS E HIDRAULICAS INDAR S. L enpresari besterendu behar zaion 68.390 metro karratuko [lursailak](#) muga hauek ditu: Iparraldean, [lursaila](#) desjabetu eta gero Eusko Jaurlaritzako Errepide Sailak egindako errepide berria eta Txintxurreta eta Zuntzunegi baserrietara doan antzinako [bide-zordun bidea](#); Hegoaldean, gelditzen den jatorrizko [finka](#); Ekialdean, Txintxurreta baserriari dagozkion [lursailak](#); Mendebaldean, gelditzen den jatorrizko [finka](#).

Gelditzen den jatorrizko finkaren mugak, hauek dira: [Iparraldean](#), [lursailak](#) desjabetu [ondoren](#) Eusko Jaurlaritzako Errepide Sailak egindako errepide berriarekin eta Txintxurreta eta Zuntzunegi baserrietara doan antzinako [bide-zordun bidea](#); Hegoaldean, Zumarraga-Bilbo [saihesbidea](#) egiteko desjabetutako [lursaila](#) eta [Ikatz-erreka errekatxoa](#) (Olaberriako udalerria); Ekialdean, banandutako [lursaila](#); Mendebaldean, [N-1 Irun-Madril Errepide Nagusia](#) egiteko desjabetutako [lursailak](#).

Bigarren. [Udal-teknikariak](#) bere [txostenean](#), Udalak besterendu behar duen [lursaila](#) 85.487.500 pezetatan baloratu du. MAQUINAS ELECTRICAS E HIDRAULICAS INDAR S. L. enpresarena berriz, 106.433.492 pezetatan. Bi ondasunen artean dagoen diferentzia, 20.945.992 pezetakoa da eta balio honek ez du gainditzen [gehiena balio duenaren % 40a](#). Horren ondorioz, egin nahi den trukea bidezkoa da.

Bi ondasunen artean dagoen diferentzia, ordea, [Udalak konpentsatuko du](#), hau da, [pabilioi](#) berriaren eraikinagatik ondorioztatuko den tasa eta zergen kopurua MAQUINAS ELECTRICAS E HIDRAULICAS INDAR S. L enpresari subentzionatuko [egingo](#) zaio, baina beti ere, diru kopuru [hori](#) aurrekontuan esleitzeko baldintzarekin.

Hirugarren. [Hasitako prozedura hau](#), Autonomi Erkidegoan eskurantzaren duen organoaren jakinaren gainean jarriko da, Ondasun Araudiaren 109. artikulua dioena betez.

Laugarren. Alkate jaunari [ahalmena](#) ematen zaio akordio hau [gauzatzeko](#) behar diren dokumentuak sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Como he manifestado anteriormente nos vamos a abstener.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Gu ez gara sartu behar denok ezagutzen duzuen balorazio orokorrean. Proiektu orokorrarekin ados gaude, baina ez gauzatu behar den erarekin. Hau xehetasun teknikoa denez, trukearekin ados gaude.”

Besterik gabe bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV/EA, EH, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

7- ORDEZKARIAREN IZENDAPENA

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Orain arte bezala gure proposamena, Goierriko Herrien Ekintza Fundaziorako ordezkaria, Alkatea izendatzea da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren talde guztietako ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

8- IZENDEGIA

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak, Patxi Plazaola jaunari hitza eman dio eta honek [hirigintza-batzordeak](#) baieztatutako [euskara-batzordeko](#) proposamenaren berri eman du:

“Beasaingo hirigintzan 7. S (7. Sektorea) deitutako gunean, industrialde berri bat ari da sortzen. Gune horretan jatorrizko izen moduan TXARA (jaral, jaro) azaldua da eta ahoz ere TXARA eta TXARAKA entzunak dira.

Horren ondorioz, TXARAKO INDUSTRIALDEA izendatzea proposatzen dugu eta gure toponimia historikoaren onerako, Udalak ofizialki hala onartu, erabili, errotulatu, planoetan jarri eta erabilpen zuzen hau behar adina zabaltzea eskatzen dugu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Guk ere onartu egingo dugu, baina izenak jarri behar ditugunean toponimian bilatzen ditugu. Kasu honetan tira, nahiz eta zalantzan jarri zenbaiteraino ezagutzen den Jaro izena. Baina beste toki batzuetan ez litzateke gaizki egongo beste irizpide batzuk erabiltzea izenak ipintzeko. Adibidez, herriko jendeak ezagutzen dituen izenekin izendatzea.”

EHko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

PREMIAZKO PUNTUA

Une honetan Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak hitza eskatu du eta Alkateak eman ondoren, eskaera eta galderen aurretik premiazko puntu bat sartzeko asmoa dutela **adierazi du**; hain zuzen ere, **premiazko** mozioa. Hau aurkeztearen arrazoia, honako hau da, Jose Luis Elorzak dioenez: “Egun hauetan bizitzen ari garen egoeragatik aurkezten dugu premiazko mozio hau. Mozioak honela dio:

“Egun hauetan Euskadin gertatzen ari diren biolentzi ekintzen aurrean, azkeneko orduetan suposatu dutena PSE-EEeko Errenteriako egoitza erretzea eta udalbatza honetan eseritzen den zinegotzi bati mehatxatu egiten dioten kartelak zabaltzea, Beasaingo herriak eta udalbatza honek bere izenean zera adierazi du:

1- Beasaingo herriak eta bere izenean udalbatza honek biolentzi honen ondorioak jasotzen ari diren pertsona eta erakundeei elkartasun osoa adieraztea.

2- Beasaingo herriak -hainbat alditan esan duen moduan- berriro ere adierazten du ez duela biolentziarik nahi gure herrian, ez duela onartzen edozein motatako biolentziarik erabiltzea gure herriko arazo politikoen izenean eta biolentzia erabiltzen dutenei garbi jakin araztea gure herriaren kontra dabilatzatela.

3- Udalbatza honek dei bat egiten die beasaindar guztiei ahaleginak egin dezaten Beasain biolentziarik gabeko herri bat bihurtzeko.”

[Aipatutako mozioa, premiazko puntu moduan tratatzea onartzen den jakiteko, bozketa egin da.](#)

Bozketa egin da eta aho batez onartu da mozioa, premiazko puntutzat tratatzea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek jaso dira:

Julio Herreros (PP) jaunak esan du mozioarekin ados dagoela.

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Mozio honen filosofiak zerbait adierazten du, hain zuzen ere, xehetasun gehiagotan sartu gabe, biolentzi bat dagoela. Beti bezala faltan botatzen duguna zera da, zer biolentzi mota dauden esatea. Irakurtzerakoan ez zaigu garbi geratzen zertan ari garen, zeren eta guretzat bi biolentzi mota daude eta bakoitzak bere arrazoiak ditu eta arrazoi hauek aztertzen ez diren bitartean oso zaila izango da konponbidea lortzea. Inork nahi ez dituen gertaera horiek, aurreko egoera baten ondorioak besterik ez dira. Argi dago bakarrik zentzu batean hitz egiten dela eta guk ez dugu nahi nahasketarik izatea hemen hitz egiten denari buruz. Azalduko balitz biolentziaren arrazoa zein den eta biolentzi mota guztiak aztertuko balira, besteak beste orain dela aste bete Tolosan gertatutakoa Esteban Esteban Nietoarekin, zeren eta hau ere biolentziaren ondorioa bezala sortzen da, orduan beste jarrera bat adieraziko genuke, baina biolentzi osoaren salaketa ez dagoenez gure botoa aurkakoa izango da. Prest egongo ginateteke mozio hau denon artean adosteko eta beste era batean aurkezteko.”

Alkate (EAJ-PNV/EA) jaunak: “Gure jarrera mozioaren aldekoa izango da, garbi gera dadin gure posizioa beti demokratikoa izan dela eta izaten jarraituko duela. Mozioa aurkeztu den eran ez zaigu gustatzen, nahiz eta Julioaren egoerarekin bat egin. Mozioan esaten da PSOEko egoitzak eraso izan duela, baina atzo ere gertaera batzuk izan ziren eta [herenegun](#) ere bai eta kontua da nondik hasi eta non moztu. Guk garbi utzi nahi duguna da biolentziaren aurrean zein den gure jarrera. Presoen egoera bortitza ere salatu egiten dugu eta nola ez Julio Herrerosi gertatutakoa. Mozioarekin eztabaidan

ez sartzeagatik onartu egingo dugu, kontuan izanik PSOEk Erreterian izandako eraso eta beste herri batzuetan eman diren ekintzak, hau da, Tolosan, Getxon eta baita ere Nietorekin gertatutakoa.”

Bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV/EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 3 (EH)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, [gehiengo absolutuz](#) onartu da PSE-EE/PSOE aurkeztu duen mozioa.

9- ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ondorengoak aurkeztu dira:

ARDURADUN POLITIKO ETA TEKNIKOAK EZAGUTZERA EMATEA

Alkate jaunak, Jose Luis Elorza jaunak Udalbatzaren [batzarraldi batean](#) eskatutako [arduradun](#) politiko eta [teknikoei](#) buruzko Udalaren organigrama banatu du.

LOINAZPE IKASTETXE ONDOKO ESPALLOIA

Jose Luis Elorza jaunak esan du Loinazpe Ikastetxe ondoko espaloia ez dagoela egoera onean, espaloiko baldosak hautsita daudelako eta galdetu du gaia aztertu eta erabakiren bat hartu den.

Alkate jaunak erantzun dio esanez, [hirigintza-batzordean](#) gaia tratatuko dela eta agian irtenbidea espaloia asfaltatzea izango dela, berriro baldosak jarri ordez.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.